



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

TXAPELKETAK BERTAN BEHERA UZTEKO JAKINARAZPENA

Euskadiko Futbol Federakundeko Zuzendaritza Batzordeak, atzo ospatu zen bileran, datorren asteburuan, otsailaren 14an eta 15ean, berari dagozkion txapelketa guztiak hala nola Espainiako Futbol Federazioak eskuordetzen dituenak, bertan behera uztea adostu zuen.

Protesta neurri hau Oinarri Futbola eta Amateurra arloen aldekoa da eta ondorengo arrazoietan oinarritzen da:

1) Kirol Kontseilu Gorenak zein Enplegua eta Gizarte Segurantzaren Ministerioak eginiko azterketa, ekintzaileak babesteko 14/2013 Legearen 16. Xedapen Gehigarriari jarraiki, oinarri futbolaren zein amateurraren kirol klubek eta erakundeek garatu jardueraren erlazio juridikoari eta kokapenari dagokie, zeinen arabera derrigorrezkoak izango diren klubak jarduerarekin loturiko pertsona guztien (monitoreak, entrenatzaileak, futbolariak...) lanbide kontratazioa hala nola Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrari dagokion kotizazioa; baita Sozietateen gaineko Zergaren Legean eginiko aldatetaren aplikazioa ere, hain zuzen diru irabazi asmorik gabeko erakundeak eragiten dituena.

Ondorioz, erregulazio propioa eta berezia garatzea eskatzen dugu, kirol ez profesionalerako, dagozkion berezitasunak islatuko dituenak, bestela futbol klub ugari desagertu egingo baitira, Gizarte Segurantzari eta Ogasunari eginiko balizko arau-hausteak direla eta erantzukizuna bere gain hartuko lukeen zuzendaririk ez egoteagatik eta minimora murriztuko lirateke hastapen futbolarekin altruistak izanik kolaboratzen duten zuzendarien eta boluntarioen kopurua.

2) Desadostasuna kinielen funtsak banatzeko moduari dagokionez, futbol profesionalaren eta ez profesionalaren artean antzematen den bereizkeriagatik, bereziki futbol ez profesionalerako instalazioen hobekuntza eta berrien eraikuntza eragozteak eragiten duelako; ez da onartzen kirol instalazioen hobekuntzarako diru-sarrera esanguratsuen murrizketa hori.

3) Desadostasuna kopuru bereizlearekin, antza denez futbol ez profesionalari dagokiona txapelketa profesionaleko ikus-entzunezko eskubideen Merkaturatze zentralizaturako Errege Dekretuan. Kopurua hori ez da inola ere nahikoa futbol ez profesionala bultzatzeko orduan.

4) Kirol Kontseilu Gorenak etenarazi egin ditu Espainiako Futbol Errege Federazioak ezarri nahi dituen araudiaren inguruko ekimen ugari, horiek gure kirolaren garapena nabarmenki kaltetzen dutelako.